

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/469/EE ERABAKIA, 2008ko ekainaren 5ekoa, EBren Elkartasun Funtseko dirua bideratzeari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruz 2006ko maiatzaren 17an sinatutako Erakunde arteko Hitzarmeneko 26. puntuarekin bat etorritz hartua.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 5 de junio de 2008, sobre la movilización del Fondo de Solidaridad de la UE de conformidad con el punto 26 del Acuerdo interinstitucional, de 17 de mayo de 2006, entre el Parlamento Europeo, el Consejo, y la Comisión sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 162/30, 2008/6/21ekoa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## II

*(Actos adoptados en aplicación de los Tratados CE/Euratom cuya publicación no es obligatoria)*

### ERABAKIAK

# EUROPAKO PARLAMENTUARENAK ETA KONTSEILUARENAK

## EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA

2008ko ekainaren 5koa

**EBren Elkartasun Funtseko dirua bideratzeari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruz 2006ko maiatzaren 17an sinatutako Erakunde arteko Hitzarmeneko 26. puntuarekin bat etorriz hartua**

(2008/469/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Erakundearen arteko Hitzarmena —2006ko maiatzaren 17koa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen artekoa, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzkoa <sup>(1)</sup>— aztertu dute, eta 26. puntua bereziki,

Kontseiluaren 2012/2002 (EE) Erregelamendua —2002ko azaroaren 11koa, Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa sortzen duena <sup>(2)</sup>— aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute, Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Elkartasun Funtsa (“Funtsa”) hondamendiak jotako eskualdeetako herritarrei Europar Batasunaren elkartasuna erakusteko sortu zen.

(2) 2006ko maiatzaren 17ko Erakunde arteko Hitzarmenari jarraiki, Funtseko horretara 1.000 milioi euro bideratu daitezke urtean.

(3) 2012/2002 (EE) Erregelamenduan jasotzen dira Funtseko dirua bideratzeko xedapenak.

(4) Greziak Funtseko dirua jasotzeko eskaria aurkeztu zuen 2007ko abuztuko baso-suteek eragindako hondamendia zela eta.

(4) Esloveniak Funtseko dirua jasotzeko eskaria aurkeztu zuen 2007ko iraileko uholdeek eragindako hondamendia zela eta.

ERABAKI DUTE:

---

(1) C 321 EO, 2006/06/14koa, 1. or. Azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/371/EE Erabakiak aldatutako Hitzarmena (L 128 EO, 2008/05/16koa, 8. or.).

(2) L 311 EO, 2002/11/14koa, 3. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*1. artikulua*

Europar Batasunaren 2008rako aurrekontu orokorrean 98.023.212 euro bideratuko dira Europar Batasunaren Elkartasun Funtzaren konturako konpromiso- eta ordainketa-kredituetara.

*2. artikulua*

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da. Estrasburgon emana, 2008ko ekainaren 5ean.

*Europako Parlamentuaren izenean, presidentea:* H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean, presidentea:* J. LENARCIC